


Azpeitia

Denontzat



Zerbitzuen gida

Service guide



Aurkibidea

Contents

Kokapena Location	3
Agurra Greeting	5
Herritarren Arreta Zerbitzua / Errolda	
Citizen assistance service / Registration.....	7
Osasuna Health.....	8
Etxebizitza Housing.....	9
Enplegua / Formakuntza Employment / Training.....	10
Hezkuntza Education.....	12
Gizarte Zerbitzuak Social Services	18
Immigrazioa eta aniztasuna Immigration and diversity	20
Parekidetasuna Equality.....	21
Haur / Nerabe / Gazteria Childhood / Adolescence / Youth	22
Euskara Basque	24
Kirola Sports	25
Kultura Culture.....	26
Informazio orokorra General information	28
Udaltzaingoa Municipal police	30



Kokapena

Location

Honezkero jabetuko zinen bezala, mendiz eta paisaia berdez inguratutako herria da Azpeitia. Urola ibaiak zeharkatzen du barrutik, eta azken datuen arabera, 15.200 biztanle inguru ditu. Plaza da herriaren bihotza, eta jenderik gehiena herrigunean bizi bada ere, auzo hauek ere Azpeitiaren parte dira. Loiola, Nuarbe, Urrestilla, Aratz-Erreka, Eizagirre, Elosiaga, Izarraitz, Odria, Oñatz, Matxinbenta, Lasao eta Landeta. Guztira, beraz, 69,39 km²-ko azalera hartzen du.

Gipuzkoa erdigunean dago kokatuta Azpeitia, Euskal Herrian, hau da, euskararen herrian. Euskara da azpeitiarren hizkuntza nagusia, eta bihotzez gonbidatzen zaitugu gure altxor hau zure ere egitera.

Jaiak

- Sansebastianak (urtarrilak 19-20)
- Inauteriak (data aldakorra)
- Saninazioak (uztailaren 30etik abuztuaren 2ra)
- Santo Tomas eguna (abenduak 21)

As you may have noticed, Azpeitia is a village surrounded by mountains and green countryside. The Urola River crosses through the town, which has some 15,200 inhabitants according to the latest data. The square is the heart of the town and, although many people live in the centre, the following neighbourhoods also form part of Azpeitia: Loiola, Nuarbe, Urrestilla, Aratz-Erreka, Eizagirre, Elosiaga, Izarraitz, Odria, Oñatz, Matxinbenta, Lasao and Landeta. In total, it occupies a surface area of 69.39 km².

Azpeitia is located in the centre of Gipuzkoa in the Basque Country. Our people speak Basque as their first language, and we sincerely invite you to make this treasure yours too.

Festivals

- Día de San Sebastián/St. Sebastian's Day (19–20 January)
- Carnivals (the dates vary between February and March)
- Día de San Ignacio/St. Ignatius' Day (30 July – 2 August)
- Día de Santo Tomás/St. Thomas' Day (21 December)



Kaixo, azpeitiar berri hori!

Gida hau irakurtzen ari baldin bazara, ziur asko, duela gutxi Azpeitira bizitzera etorri zarelako izango da. Beraz, hasteko eta behin, ongi etorri!

Ez du erraza izan behar beste toki batean hutsetik hastea. Horregatik, liburuxka honen bidez, prozesu hori errazten lagundu nahi dizugu. Hurrengo orrialdeetan, zuretzat lagungarriak izan daitezkeen baliabide eta zerbitzuei buruzko informazioa jaso dugu.

Alde batetik, oinarritzko beharrei (errola, osasuna, lana...) lotutako informazioa ageri da. Horrez gain, zure zaletasunak garatzeko, herrian modu aktiboan parte hartzeko eta gozamenerako aukera izatea ere opa dizugu; horregatik, aisialdirako dituzun aukerak ere gehitu ditugu.

Gida honetan ageri den informazioaz gain beste edozer behar izanez gero, udaletxera jo dezakezu, eta hango ateak zabalik izango dituzu.

Toki batean baino gehiagoan irakurriko duzun bezala, *Azpeitia denontzat* da gure leloa, eta espero dugu zuretzat ere herri atsegina izatea, etxean bezala sentitzea, eta zure bizi proiektua gauzatzeko aukera ematea Azpeitiak.

Elkarren berri izango dugulakoan,

Nagore Alkorta Elorza

Agurra Greeting



Welcome! Welcome to Azpeitia!

If you're reading this guide, it's probably because you've recently moved to Azpeitia. So, first of all, welcome, welcome!

It must not be easy to begin a new life in a different place, starting from scratch, so we want to help make the process easier for you with this guide. In the following pages, you'll find information about resources and services that you may find helpful.

You'll find information related to basic needs (registration, health, work, etc.), and we want to give you the opportunity to actively get involved in the town, pursue your hobbies and enjoy yourself, so we've added leisure options too.

If you need further information or if we can help you with anything else, you can turn to the town council, whose doors will be open for you.

As you will see around, our motto is Azpeitia denontzat (Azpeitia for everyone), and we hope that it will be a pleasant town for you too. We hope you'll feel at home here and that it will give you opportunities to pursue your plans and projects.


It will be a pleasure to stay in touch.

Best wishes,

Nagore Alkorta Elorza

Azpeitia

Denontzat



www.azpeitia.eus


Herritarren Arreta Zerbitzua / Errolda

Citizen assistance service / Registration

7

Herrian bizi diren herritar guztiek eman behar dute izena udal erregistroan. Erroldatzean, hainbat eskubide bermatzen zaizkie: adingabeak eskolatzea, gizarte zerbitzuak, prestazio ekonomikoak, eta abar.

Everyone residing in the locality must register with the municipality. Registering guarantees you several rights, such as schooling for minors, social services, economic benefits, etc.



- 📍 Plaza Nagusia, 5, 20730 Azpeitia, Gipuzkoa
- ☎ 943-15 72 00
- ✉ sarrera@azpeitia.eus

BakQ ziurtagiria (doakoa)

BakQ Certificate (Free)

BakQ ziurtagiriarekin, herritar edo autonomo gisa identifikazio telematikoa edo sinadura elektronikoa eskatzen duen edozein izapide egin daiteke. Ordenagailuetan, mugikorretan eta tabletetan erabil daiteke, edozein sistema eragiletan, eta ezer instalatu beharrik gabe.

With a BakQ, you can carry out any administrative procedure that requires electronic identification or an electronic signature as a citizen or a self-employed worker.

It can be used on computers, mobile phones and tablets, on any operating system, without the need to install anything.

<https://www.izenpe.eus/bakq-herritarrentzako-identifikazio-elektronikoaren-errotariko-giltza/webize00-cn2ciudadania/eu/>

2 Osasuna Health



Azpeitian eta Euskal Autonomia Erkidegoan osasun zerbitzua eta asistentzia zerbitzua Osakidetzaaren esku daude; doakoak eta publikoak dira. Zerbitzuak jaso ahal izateko, errolatu ondoren, Osasun Txartel Indibiduala (OTI) eskatu behar da osasun zentroan.

In both Azpeitia and the Basque Autonomous Community (region), free public healthcare services are offered through Osakidetza. In order to take advantage of the services, you must request an Individual Health Card (TIS) at the health centre after you have registered with the municipality.

Azpeitiko osasun zentroa Azpeitia Health Centre



Jose Artetxe Kalea, 7, 20730 Azpeitia, Gipuzkoa



943-02 54 00

Osasun larrialdiak Health Emergencies



SOS deiak SOS calls: 112



Osakidetza www.osakidetza.euskadi.eus

Etxebizitza 3

Housing

Etxea erosi edo alokatzeko, partikularrekin harremanetan jarri behar izaten da. Euskal Autonomia Erkidegoan laguntza ekonomikoak daude, eta horietara iristeko Etxebiden eman behar da izena.

You can contact individuals directly to buy or rent a home. There are also public resources that facilitate access to housing and economic support. To apply for them, you need to sign up for Etxebide.

Azpeitia Berritzen

Etxebizitza bulegoa.

Housing Office.

📍 Enparan Kalea, 34, 20730 Azpeitia, Gipuzkoa

☎ 943-15 71 83

Etxebide

Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua.

Basque Housing Service.

📍 www.etxebide.info

☎ 012

Alokabide

Eusko Jaurlaritzak gizarte alokairua kudeatzeko duen zerbitzua da.

The Basque Government's service to manage subsidised rentals.

☎ 944-04 47 08

✉ gipuzkoa@alokabide.eus



www.alokabide.euskadi.eus

4 Enplegua / Formakuntza

Employment / Training



Lan bila ibiliz gero, Lanbiden eman behar da izena. Bertan ematen dute lan eskaintzen informazioa. Eskualdeko lan eskaintzen informazioa jasotzeko, Iraurgi Berritzenera jo behar da.

If you're looking for a job, you should sign up with Lanbide, which will supply you with information about job offers. For employment offers in the region, please contact the Iraurgi Berritzen.

Lanbide

📍 Urola Kalea, 6, Azpeitia

☎ 945-16 06 00

🌐 www.lanbide.net

Iraurgi Berritzen

Enplegu bulegoa.
Employment Office.

📍 Enparan kalea 1-3, Azpeitia

☎ 943-08 34 69

✉ enpleguzentroa@iraugiberritzen.eus

UrolaPrest

Urola Erdiko enplegu, orientazio eta prestakuntza informazio bateratua eta eguneratua.

Combined updated information on employment, coaching and training in the Urola Medio region.



<https://www.urolanprest.eus/>



info@urolanprest.eus

Basazabal Jauregia

Etengabeko formazio zentroa.

Continuing Education Centre.



Enparan Kalea, 18, 20730 Azpeitia



basazabal@azpeitia.eus

KZ Gunea

Teknologia berrien arloko formakuntza.

Training in the field of new technologies.



Foru ibilbidea 18 (Enparan dorretxea)



943-02 36 20



tutor.azpeitia@kzgunea.net



www.kzgunea.net



5 Hezkuntza

Education

Euskal Herrian hezkuntza eskubide bat da, eta 6-16 urte bitarte derrigorrezkoa. Hizkuntzari dagokionez, hiru hezkuntza-ereduren artean egin daiteke hautaketa.

HEZKUNTZA EREDUAK:

- D.- Hezkuntzako hizkuntza nagusia euskara da
- A.- Irakaskuntza osoa gaztelaniaz, euskara ikasgai gisa
- B.- Hezkuntza elebiduna da

Azpeitiko ikastetxeetan D ereduan ikasten da. D ereduak, euskarazko eta gaztelarazko maila egokia bermatzeaz gain, ingelesa eta beste hizkuntza batzuk barneratzen laguntzen du.

D eredu oso zabalduta dago Gipuzkoan eta Euskal Herrian, eta bertako nahiz beste jatorri batzuetako gurasoek bertan matrikulatzen dituzte beren seme-alabak. Eredu arrakastatsua da, eta emaitza oso onak ematen ditu.

In the Basque Country, education is a right and is compulsory between the ages of 6 and 16.


You can choose between three educational linguistic models.

EDUCATION MODELS:

- D.- Education is primarily taught in Basque.
- A.- All education is taught in Spanish, while Basque is offered as a course.
- B.- Education is taught in both languages.

In Azpeitia's schools, lessons are taught according to Model D. In addition to guaranteeing a good level of Basque and Spanish, this also helps students to acquire knowledge of English and other languages.

Model D is widespread in Gipuzkoa and the Basque Country, and both local parents and guardians and those from other parts enrol their children in this option, which yields strong academic results.



HEZKUNTZA ESKAINTZA SCHOOLS

Azpeitiko Haurreskola-Urrestilla PHE (0-3 URTE) (AGES 0-3)

-  Zerralde 6, Urrestilla auzoa
-  943-81 34 11
-  urrestilla.azpeitia@haurreskolak.eus
-  <http://www.haurreskolak.eus>

Azpeitiko Haurreskola-Uztaro PHE (0-2 URTE) (AGES 0-2)

-  Euskal Herria 47, 48 eta 49 behea
-  943- 81 31 90
-  uztaro.azpeitia@haurreskolak.eus
-  <http://www.haurreskolak.eus>


Azpeitiko Ikastola-Ikasberri Koop. HLBHIP (0-18 URTE)

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa.

Azpeitia Ikastola Ikasberri Kooperatiba. CPEIPS (AGES 0-18)

Pre-school, Primary and Secondary Education.

-  Loiolako Inazio Hiribidea, 26
-  943-15 12 46
-  ikasberri@azpeitikoikastola.eus
-  <https://azpeitikoikastola.eus/>



5 Hezkuntza

Education

Iraurgi HLBHIP (0-18 URTE)

Haur, Lehen, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa.

Iraurgi CPEIPS (AGES 0-18)

Pre-school, Primary and Secondary Education.

📍 Harzubia hiribidea 7

DBH-DBHO ESO-ESPO (Obligatory Secondary Education – Years 11 & 12 + Vocational Training).

📍 Etxe-Alai 12

☎ 943-81 02 10

✉ iraurgi@iraurgi.eus

🌐 <https://www.iraurgi.eus>

Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai HLHI (3-12 URTE)

Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai CEIP (AGES 3-12)

Haur Hezkuntza Pre-school.

📍 Euskal Herria 50

☎ 943-89 91 41

✉ 012320aa@hezkuntza.net

Lehen Hezkuntza Primary Education.

📍 Perdillegi 2

☎ 943-89 91 43

✉ 012320ab@hezkuntza.net

🌐 <https://azpeitikoikastola.hezkuntza.net>



Urola Ikastola BHI (12-18 URTE). Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa.

Urola Ikastola IES (AGES 12-18). Secondary Education.

- 📍 Perdillegi 3
- ☎ 943-89 93 35
- ✉ 013555aa@hezkuntza.net
- 🌐 <https://urolabhi.hezkuntza.net>

CEPA Urola Kosta HHI (Helduen Hezkuntza). Gaztelarazko eta alfabetatzeko ikastaroak. DBHko titulua eskuratzeko ikastaroak.

Goi mailako Heziketa Zikloetarako sarbidearen prestaketa eta 25-45 urte-tik aurrerako unibertsitaterako sarbidearen prestaketa.

CEPA Urola Kosta HHI (Adult Education). Courses in Spanish and literacy. Courses to obtain the ESO (Obligatory Secondary Education) qualification. Preparation for access to Higher Education Training Cycles and preparation for subsequent access to universities for those over 25/45 years of age.


- 📍 San Martin Estrata
- ☎ 943-81 22 03
- ✉ 012760aa@hezkuntza.net
- 🌐 <https://urolakostahhi.net/eu/>


Hezkuntza zerbitzua Education Service

- 📍 Udaletxean, Plaza Nagusia, 5
- ☎ 943 25 50 06
- ✉ hezkuntza@azpeitia.eus




1. Udaletxea Town Hall
2. Osasun zentroa Health Centre
3. Azpeitia Berritzen
4. Lanbide
5. Iraurgi Berritzen
6. Liburutegia Library
7. Basazabal jauregia
8. Urrestilla
9. Azpeitiko Haurreskola-Uztaro
10. Azpeitiko Ikastola-Ikasberri Koop.
11. Iraurgi HLBHIP
12. Azpeitiko Ikastola-Karmelo Etxegarai
13. Urola Ikastola
14. Gizarte Zerbitzuak Social Services
15. Emakumeen Txokoa
16. Euskategia
17. Igerilekuak Swimming Pools
18. Kiroldegia Sports Centre
19. Iturritxiki ludoteka
20. Txiki-Txoko ludoteka
21. Soreasu Kulturgunea





8
Urrestilla

6 Gizarte Zerbitzuak Social Services



Zerbitzua herritar eta kolektibo orori zuzenduta dago. Herritarrek ahalik eta bizi kalitate onena izatea du helburu, aniztasunean, justizia sozialean eta berdintasunean oinarrituta, adin, jatorri nahiz genero guztietako herritarren babes soziala eta ongizatea bermatzea hain justu.

Zerbitzuak herritarren eskubide eta baliabideen inguruko informazioa ematen du, eta balorazioak eta bideraketak egiten ditu. Herritarren sentimenduetan ere egiten du lan: bai egun dauden behar sozialen inguruan eta baita parte hartze sozialaren inguruan kontzientziazteko ere.

Honako lan ildoak garatzen ditu: norberaren autonomia bultzatu eta mendekotasunak ekartzen dituen behar pertsonalak aurreikusi eta horietan laguntzea; babes ezagatik sortzen diren egoerak aurreikusi eta horietan laguntzea; baztertzeko egoerak aurreikusi eta horietan lagundu eta pertsonen, familien edo taldeen bergizarteratzea bultzatzea; eta larrialdiko egoerek sortzen dituzten egoera pertsonalak eta familiarrak aurreikusi eta horietan laguntzea.

This service is aimed at all citizens. Its objective is to improve people's quality of life and guarantee social protection and well-being for those of all ages, origins and genders, through diversity, social justice and equality.

The service works to inform, assess and channel citizens' rights and resources and also strives to raise people's awareness of current social needs and to boost social participation.

The following lines of work are pursued: promoting personal autonomy and preventing dependence, supporting personal needs arising from the same; averting situations characterised by a lack of protection and providing support to those in them; avoiding situations of exclusion and promoting the social reintegration of individuals, families and groups; and preventing and addressing personal and family situations stemming from emergency situations.

Gizarte Zerbitzuak Social Services

-  1766ko Matxinada kalea 3-4 (behea)
Sarrera: Goiko Kalea
-  943-15 71 92
Larrialdiak: 112
-  gizarte@azpeitia.eus
-  <https://azpeitia.eus/gizarte-zerbitzuak-saila>



Eraso sexista baten aurrean hurrengo telefonoetara deitu:

In the event of Gender Violence or Abuse, you can use the following hotlines:

-  900-84 01 11
Azpeitiko Gizarte Zerbitzuak Azpeitia Social Services: 943-15 71 92
Larrialdiko zerbitzuak Emergency Services: 112
Udaltzainak Municipal Services: 092

7 Immigrazioa eta aniztasuna

Immigration and diversity



Zerbitzuaren helburua da etorkinak gizarte-bizitzako eremu guztietan integratzea, eta, horretarako, gainerako herritarren eskubide eta betebeharrak berdinetan parte hartzea eragotzen duten oztopoak kentzea.

This service aims to integrate migrants into all areas of social life, eliminating the obstacles that prevent or hinder them from exercising the same rights and duties as other residents.

Immigrazio eta aniztasun zerbitzua Immigration and Diversity Service

✉ aniztasuna@azpeitia.eus

📍 Plaza Nagusia, 5

SOS Arrazakeria: Atzerritartasunaren arloko arreta juridikoa.

SOS Against Racism: Legal assistance with immigration-related matters.

📍 Enparan kalea, 6 (aurretiatzeko hitzorduarekin) (appointment required)

☎ 943-24 56 26

✉ sos.gipuzkoa@sosracismo.eu

🌐 <https://sosracismogipuzkoa.org/>

Biltzen

Atzerritartasunaren arloko arreta juridikoa.

Legal assistance with immigration-related matters.

☎ 900-84 08 90

✉ asesoria@euskadi.eus

Bidez Bide

Tituluen homologazioen inguruan informazioa:

Information on the standardisation of degrees:

🌐 bidezbide@bidezbide.org



Parekidetasun Sailaren helburu nagusia jendarte eredu justuago eta parekideago bat eraikitzea da. Helburu hori lortzeko, berdintasun eta LGTBI+ politika publikoak diseinatu eta garatzen ditu.

Topaleku bikaina da Emakumeen Txokoa, herritar guztientzat irekitako gunea.

The Equality Department's main objective is to create a fairer and more equitable model of society. To achieve this goal, the Town Council designs and develops public policies on equality and LGBTI+ issues.

Emakumeen Txokoa is a forum open to all citizens.

Parekidetasun Saila Equality Department

📍 Azpeitiko Udala. Plaza Nagusia, 5

☎ 943-15 79 28

✉ parekidetasuna@azpeitia.eus

Azpeitiko Emakumeen Txokoa

📍 Goiko Kalea, 12, 20730 behe, Gipuzkoa

☎ 943-15 70 55 / 688 75 10 00

✉ emakumetxokoa@azpeitia.eus

9 Haur / Nerabe / Gazteria

Childhood / Adolescence / Youth

Gazteria Sailaren helburua gazte, nerabe eta haurren beharrak entzun eta asetzea da. Horretarako, hainbat baliabide eta azpiegitura jartzen dira beren zerbitzura: aisialdirako, formakuntzarako edo bestelako beharretarako.

The Town of Azpeitia's Youth Department aims to listen to and meet the needs of young people, adolescents and children. We have a series of resources and infrastructure offering the information and support necessary for their free time, training and other needs.

- 📍 Goiko kale 12
- ☎ 943-15 71 61
- ✉ gazteria@azpeitia.eus

Ludotekak Play Spaces

Haurren heziketara bideratutako 5-12 urte bitarteko haurrentzako zerbitzua da.

Ludotecas are a service aimed at educating children aged 5 to 12.

Iturritxiki Ludoteka

- 📍 Done Jakue kalea 6
- ☎ 943-15 11 79
- ✉ iturritxiki@azpeitia.eus



Txiki - Txoko ludoteka

📍 Jose Antonio Agirre Plaza 2-3

☎ 943-15 05 16

✉ txikitxoko@azpeitia.eus

Gaztelekua

12-18 urte bitarteko nerabeek erabili ahal duten gune segurua, hezitzaileen laguntza jasotzen dute uneoro eta herriko beste nerabeekin sozializatzen dira.

A safe space that can be used by adolescents aged 12 to 18, where they will receive help from educators at all times and can socialise with other teenagers from the municipality.

📍 Goiko kale 12

☎ 943-15 71 61

✉ azpeitikogaztelekua@azpeitia.eus

Urrestillako haur eta nerabe zerbitzua

Urrestilla Childhood and Adolescence Service

Haurrentzat zerbitzua 0tik 6 urte bitarteko haurrentzat.

Children's Service for children aged 0 to 6.

📍 Zerralde kalea, 2


Nerabeentzat zerbitzua 7-14 urte bitarteko haur eta gazteentzat.

Adolescents' Service for children and young people aged 7 to 14.

📍 Kale txiki 9

☎ 943-15 71 61

✉ gazteria@azpeitia.eus



10 Euskara Basque

Euskara kohesio eta komunikazio hizkuntza da. Euskarak batu eta aberastu egiten gaitu. Herritarren arteko berdintasuna bermatzeko euskara ikastea garrantzitsua da.

Basque is a language of cohesion and communication that unites and enriches us. It is important to learn Basque to ensure equality between citizens.



Euskara Zerbitzua Basque language services

✉ euskara@azpeitia.eus

Euskara ikasi nahi baduzu, Azpeitiko Udal euskaltegian izena eman dezakezu.

If you want to learn Basque, you can register at Azpeitia's municipal Euskaltegi.

Azpeitiko Udal Euskaltegia

📍 Perez Arregi plaza

📞 943-81 19 47

✉ euskaltegia@erabili.eus

Azpeitian kirol-jarduera eta ekitaldien eskaintza oso zabala da, eta biztanleriaren adin guztiei zuzendua: eskola-kirola, kirol federatua, aisialdi-kirola, adinekoak, etab. Hori guztia gauzatzeko herriko azpiegitura ona da, bai instalazio itxietan, bai aire zabalean ere.

The range of local sports activities and events in Azpeitia is very extensive, and is aimed at everybody: school sports, professional sports, leisure sports, etc. This is supported by a strong local infrastructure including indoor and outdoor facilities.



Kirol departamentua Sports Department

- 📍 Enparantza Nagusia, 5
- ☎ Udaleko kirol saila: 943-15 00 95
- ✉ kirolak@azpeitia.eus

Igerilekuak Swimming Pools

- 📍 Salbe Auzunea, 13
- ☎ 943-81 41 21
- ✉ igerilekua@azpeitia.eus

Kiroldegia Sports Centre

- 📍 Harzubia, 32
- ☎ 943-81 30 69
- ✉ polikiroldegia@azpeitia.eus

12 Kultura Culture

Azpeitian kultura arloko ekintza ugari egiten dira eta kulturarekin lotura duten herriko elkarte eta eragile guztiek laguntzen eta parte hartzen dute horretan.

In Azpeitia there are numerous cultural activities in which all the town's cultural associations and agencies collaborate and participate.

Kultura Saila Department of Culture

📍 Udala, Plaza nagusia 5

☎ 943-15 72 00

✉ kultura@azpeitia.eus

Kultur eskaintza (antzerkia, zinea, musika,...), batik bat, azpiegitura hauetan gauzatzen da.

The cultural events (theatre, cinema, music, etc.) and creative spaces mainly use the following infrastructures:



Soreasu Antzokia

📍 Soreasu Auzunea Z/G

Sanagustin Kulturgunea

📍 Plaza Nagusia 5, behea

Dinamoa Sormen Gunea

📍 Soreasu Auzunea Z/G

🌐 www.kulturaz.eus

Udal liburutegia

Herritar guztientzat irekita dagoen zerbitzua da. Liburuak, aldizkariak... kontsultatzeko eta mailegatzeko aukera eskaintzen du. Ikasgelak ere baditu.

Municipal Library

A service open to all citizens. Users may read and borrow books, magazines and more. It also includes study rooms.



-  Enparan Dorretxea
-  943-15 71 95
-  liburutegia@azpeitia.eus

Juan Antxieta Musika eskola

Musika, dantza, instrumentuak eta talde instrumentu ezberdinak jotzen irakasten zaie haur eta helduei.

Juan Antxieta Music School

Dance, music and musical instrument classes for both children and adults.

-  Soreasu Auzunea Z/G 2 pisua
-  943-81 62 63

13 Informazio orokorra

General information

Garraioa Transport

Eskualdeko herrietarako zein Donostiarako autobus zerbitzuaren lineak eta ordutegiak:

Bus lines and schedules to both towns in the area and to Donostia-San Sebastián:

Lurraldebus

☎ 943-41 52 08

🌐 <https://www.lurraldebus.eus/>

Mugi txartela

Garraio publikoak hobariak eskaintzen ditu, bidaia kopuruaren arabera prezioak aldatzen direlarik. Internet bidez edo prentsa saltokietan egin daiteke.

Mugi Card

This card provides discounted public transport with prices varying depending on the number of trips. The card can be ordered online or acquired at kiosks, tobacco shops and bookstores.

☎ 943-00 01 17

🌐 <https://www.mugi.eus/>

Urola Erdiko Mankomunitatea. Zaborren kudeaketa

Mankomunitateko hondakinen kudeaketarako informazioa eskaintzen du, eta birziklatzeko edukiontzietako giltza bertan eskatu behar da.

Mancomunidad del Urola Medio (Region). Waste Management

Offers information for waste management. You must request a key for the recycling bins from their office.


📍 Plaza Nagusia 11, 1. 2. bulegoa

☎ 943-85 73 19

✉ ueue@urolaerdia.eus

🌐 <https://www.urolaerdia.eus/>






Azoka Plaza

Azoka astearte goizetan eta ostiral arratsaldeetan izaten da. Horretaz gain, bertako elikagaien topagunea da Elikagunea.

Market in the Square

The market is held on Tuesday mornings and Friday afternoons, where you'll find merchants selling exclusive local Elikagunea products.

 Plaza nagusia 11



14 Udaltzaingoa

Municipal police




Azpeitiko Udaltzaingoa 24 orduko zerbitzua eskaintzen du, urteko 365 egunetan. Udaltzaingoa, besteak beste, ondorengo zerbitzuak eskaintzen ditu:

- Genero eta etxeko indarkeriaren biktimei arreta eta argiketak izapidetzea.
- Sexu askatasunaren biktimei arreta eta argiketak izapidetzea.
- Herritarren arteko bizikidetzatik sor daitezkeen gatazkaei aterabide adostuak lortzeko zerbitzua.

Azpeitia's Municipal Police operates 24 hours a day, 365 days a year. It offers, among others, the following services:

- The processing of reports and assistance to victims of gender-based or domestic violence.
- The processing of reports and assistance to victims of abuse related to sexual orientation or gender expression.
- Service to find consensual solutions to conflicts that may arise between citizens.




Enparan Kalea, 1

943-15 13 13 / 092



Zerbitzuen gida

Service guide



Azpeitia
Denontzat